

KONTZEJUPETIK

Eduardo Sudupe, Urola Lanbide Heziketa Eskolako zuzendari berria

"Hausnarketa bat egin beharra daukagu bailarako beharretara egokitzeko. Hausnartu eta egokitu egin behar da. Eta saiakera horrek etengabekoa izan behar du".

2

Cristóbal Balenciagak Balentzixa baserrian du jatorria

Juan Bautista Mendizabalek Balenciagaren zuhaitz genealogikoa egin du. Diseinatzailearen herenaitona Balentzixa baserrikoa zen eta bertatik dator abizena.

14

AZKOITIA 2016-2017 Legegintzaldiko bigarren urtean, kontuak ematen



Eduardo Supude, Urola Lanbide Eskolako zuzendari berria

“GURE ERRONKA DA ESKOLA BAILARAKO ERREFERENTE BIHURTZEA”

Arrasaten ingeniari teknikoak ikasi eta Danobaten ekin zion bere lan ibilbideari. Baina irakaskuntza gustuko mundua suertatuko zitzaionaren susmoa piztu zitzaion Lanbide Heziketako irakasle batek bota zionean “ondo egingo duk eta gustatu egingo zaik”. Urtebete ordezkapena egitera Elgoibarko IMH Makina Erremintaren Institutura joan zen 2000 urtean eta hiru igaro zituen. Ez zen enpresa pribatura itzuli. Oposaketak egin eta azken urte hauetan Lanbide Heziketan eskarmentu galanta bereganatu du bai irakaskuntzan eta bai zuzendaritza batzordeetan. Bergarako Miguel Altunan eta Oñatiko R.M: Zuazola-Larrañan ibili da lanean eta Eibarko Armerian zebilen Urola Lanbide Eskolara etortzeko parada izan duen arte. Aurrekoetan gertatu bezala, irakasle ikusten zuen bere burua, baina zuzendari txapela jarri diote eta “gogotsu eta ilusioz” heldu dio kargu berriari.



Urola Lanbide Eskolak garai berri bat hasi du, DBH eta batxilergotik bereizita. Nola ikusten duzu?

Lanbide Hezkuntza bakarria eskaintzen den eskola izateak, sekulako garrantzia ematen diot horri. Kanpotik, beharbada, tramite huts bat bezala ikus daiteke baina DBH, batxilergoa eta LH ematen den zentro batean beti LH galtzen ateratzen da, beti da “anaia txikia” erabakiak hartzeko edo estrategiak diseinatzeko orduan eta autonomia inportantea da LHko eskola bat bezala funtzionatzeko. Nire helburu estrategikoa da bailaran erreferente bihurtzea. Eta barne hartzen ditut Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumaia eta Errezil.

Eta herri horietako gazteak Azkoitia etorri behar dute, egin nahi duten ziklo hori hemen eskaintzen bada behintzat. Hau erronka potoloa da, baina ez dut etsiko.

Iraurgi Berritzenen datuen arabera, 10etik 7k unibertsitatera joateko hautua egiten dute. Ba, alderantziz izan beharko luke lanari erreparaturaz gero.

Ikasleak erakartzeaz ari zara?

Ikasleak eta irakasleak erakartzeaz. Hori lortzeko gure aldetik ere zerbait egin beharko dugu. Nire asmoa da bailarako irakasleak ekartzea erreleboa tokatzen denean.

Denborarekin nahi duguna da eskola tresneria aldetik jantzitzea eta irakasle onenak eta ahal bada bailarakoak ekartzea.

Eskola eta irakasleak aipatu dituzu, eta eskaintza?

Orain sei ziklo dauzkagu. Hezkuntza sailari esaten badiogu ziklo berri bat jarri nahi dugula, bat beste bategatik ordezkatzea ez zaio axola, baina beste berri bat gehitzea ez da batere erraza. Iaz jarri zen mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako zikloa. Ez da erraza hori lortzea.

Hori bai, hausnarketa bat egin beharra daukagu bailarako beharretara egokitzeko. Hausnartu eta egokitu egin behar da. Eta saiakera horrek etengabekoa izan behar du.

Uste duzu eskulana betetzeko arazoak daudela?

Nire esperientziak esaten dit enpresa batean 60 langile baldin badaude, jo dezagun bost ingeniari behar direla, beste hiruzpalau kontuak emateko eta gainerako guztiak piezak mekanizatzeko, makinak muntatzeko edo enpresak egiten duena egiteko behar dira. Gehiago hori Lanbide Heziketakoa da. Iraurgi Berritzenen datuen arabera, 10etik 7k unibertsitatera joateko hautua egiten dute. Ba, alderantziz izan beharko luke lanari erreparaturaz gero.

Gertatzen da baita gero ingeniariak LHn matrikulatzen direla lana lortzeko. Zerbait gaizki ari gara egiten hor. **Zure hitzetan, LH gaur egun etxe askotan 4., 5. edo 6. aukera da.**

Hala da. Batzuk LH egiten dute herri bertan dagoelako. Hori ere ez dut nahi. Herri bertan dagoelako eta ondo dagoelako. Beste bailara batzuetan LH bultzatzeko eredu batzuk badaude eta martxan jarri beharko genituzke guk ere. Debagoienan, adibidez, azoka bat antolatzen dute urtero

LH indartzeko elkarlana egin behar dugu, Iraurgi Berritzenekin, Udalekin eta gainerako erakundeekin. Babesa behar dugu zeren bakarrik ezingo genuke.



Javier Zubizarreta,
Azkoitiko alkatea

UDAL ADMINISTRAZIO ERAGINKORRA, ZUZENA, PROBETXUGARRIA ETA GERTUKÓA

2015-2019 legealdiaren erdian gaude eta iaz egin genuen bezala, aurten ere agintaldiko bigarren urteaz kontuak ematera gatoz. Gure erantzukizuna da azalpenak ematea eta Udala herritarron zerbitzura dagoen erakundea izanik, zuek, herritarrok, eskubide osoa duzue gu neurtzeko. Horretarako, gure egitekoa da herritarren informazio eskubidea bermatzea.

Horretarako, "Kontzejupetik" aldizkarira jo dugu, garatutako edo garatze bidean dauden proiektu nagusien berri emateko, umeen, adoleszenteen, helduen eta pertsona nagusien beharrak asetzen dituen herri bat eraikiz egunero.

Jendearen arazoak konpontzeko gaude hemen. Eta diru-

diena baino zailagoa da. Zer esatea erraza da, *nola*, berriz, ez hainbeste.

Lau dira gure kudeaketa ereduaren oinarriak: eraginkortasuna, zuzentasuna, baliagarritasuna eta gertutasuna.

Asko dago egiteko, eta burokrazia administratiboak ez ditu beti gauzak errazten. Baina legealdiko bigarren urte honetan ere ez dugu denborarik galdu, lanaren zati bat baino ikusten ez den arren kanpoan.

Ahalegin handia egin dugu "etxea" ordenatzen, datorrena datorrela gero ere, erakunde ordenatu eta optimizatua aurkitu dezan.

POR UNA ADMINISTRACIÓN LOCAL EFICIENTE, INTEGRA, UTIL Y CERCANA

Estamos en el ecuador de la legislatura 2015-2019 y al igual que hicimos el año pasado, queremos dar cuenta de lo que hemos hecho en este segundo año de mandato. Sencillamente porque es nuestra responsabilidad hacerlo y porque un Ayuntamiento es una institución al servicio de los ciudadanos y estos, vosotros, tenéis todo el derecho a "examinarnos". Nuestro deber es garantizar el derecho de acceso a la información de los ciudadanos.

Por ello, hemos echado mano de esta revista, "Kontzejupetik", para mostrar en sus páginas centrales los proyectos en los que hemos o estamos trabajando para hacer de Azkoitia un municipio que satisfaga las necesidades de niños, adolescentes, adultos y personas mayores.

Estamos aquí para resolver los problemas de la gente. Y esto que parece sencillo, no lo es tanto. El "qué" es fácil, el "cómo", no.

Lo estamos haciendo fijando nuestra gestión sobre cuatro pilares básicos: Eficiencia, integridad, utilidad y cercanía.

Hay mucho que hacer, y la burocracia administrativa no siempre facilita la labor. Pero en este segundo año de legislatura tampoco hemos perdido el tiempo, aunque de toda la gestión solo una parte se visualiza en el exterior.

Hemos invertido mucho esfuerzo en ordenar la "casa" para que, venga quien venga después se encuentre con una institución organizada y optimizada.

LA GESTIÓN MUNICIPAL EN EL SEGUNDO AÑO DE LEGISLATURA

ZER EGIN DUGU LELEGINTZALDIKO BIGARREN URTEAN?

Udal honek bere erantzunkizutat du herritarrei udal kudeaketaren inguruan kontuak ematea. Hurrengo orrietan azken urtean, legealdiko bigarrengoan, egingakoaren berri ematen da.

Tras el segundo año de mandato de la legislatura 2015-19 llega la hora de rendir cuentas a la ciudadanía porque hacerlo es nuestra responsabilidad. Recogemos las principales actuaciones y programas llevados a cabo durante estos últimos meses.



Hirigintza



ACTUACIONES EN EL BARRIO DE FLOREAGA

Floreaga auzoan hainbat hobekuntza egin dira. Bertako bolatokia txukundu da, abandonatuta zegoen iturri bat tokiz aldatu eta berriro martxan jarri, mahai eta aulkiak ipini, gunee bat hesitu, e.a. Bolatoki ondoko aparkalekuko lurzoruan ere esku-hartze bat aurreikusita dago.



HERRI BARRUKO HAUR PARKE GUZTIAK HOMOLOGATZE BIDEAN DIRA

Herri barruko haur parke guztiak homologatze bidean dira, araudiak agintzen dituen segurtasun neurri guztiak betetzeko. Herri barruan 18 parke daude. Horietatik seik lortu dute jada homologazioa, beste hamar urte amaierarako homologatuta izango dira eta bi geratuko lirarteke hirigintzako beste esku-hartze baten barruan aurreikusita dagoelako azken bi horien egokitzapena.

Parkeak homologatzeko orduan, erabilitako materialak, dimentsioak, espazioak, altuerak, e.a. hartzen dira

kontutan instalazioaz edo mantentzen diren gain.

Parke bakoitzean seinalizatuta dago jolas bakoitza zer adinekoei zuzendua dagoen. Seinaleetan larrialdietako eta informazio telefonoak ere agertzen dira.

De los 18 parques que hay en el núcleo urbano, seis se han homologado ya y otros diez lo estarán para finales de año.

UDALARENA DA IDIAKEZ ETXEAREN JABETZA

Bertan, Visesak babes ofizialeko 14 etxebizitza eraikiko ditu



Udalarena da jada Idiakez Etxea-
ren jabetza. Etxe-jabeek Udala-
rekin urteen poderioz egindako zo-
rraren truke bereganatu du Udalak
eraikina. Prozesu luzea eta konplexua
izan da, baina ezinbestekoa, egoerari
konponbidea eman ahal izateko. Ber-
tan Visesarekin lortutako akordioaren
arabera, babes ofizialeko 14 etxebizi-
tza eraikiko dira. Halaber, beheko so-
lairuan Jubilatuen Etxea eraikiko da.

Lotu beharrekoa lotuta dago. Orain
Udala Visesak lan kronograma bat

noiz aurkeztuko zain dago, proiektu-
tuaren egutegi bat izateko.

La propiedad de la Casa Idiakez es
Lya al 100% del Ayuntamiento, un
paso necesario para dar una salida
al edificio. También está cerrado el
acuerdo con Visesa para construir 14
viviendas de protección oficial en el
inmueble.

En la planta baja se ubicará el Hogar
del Jubilado.

■
Ana Azkoitia eta Javier Zubizarreta
Visesako zuzendari ohi Marcos
Murorekin

OTEIZA FRONTOIAK

Egun hauetan justu Oteiza Fron-
toietan txukunketa lanak bu-
rutzen ari dira. Gune batean antze-
mandako itukinak desagerrarazi eta
frontoien hormetan tratamendu bat
aplikatzen ari dira, gune guztiz itxu-
raberrituz.

Estos días están reformando los
E Frontones Oteiza. Están aplican-
do un tratamiento sobre las paredes
de la macro escultura para recuperar
el color y la apariencia originales.



IRISGARRITASUNA HOBETU DA SAN MARTIN AUZOAN



Irisgarritasuna hobetzeko hainbat
I esku-hartze gauzatu da San Mar-
tin auzoan eta aurreikusita daude
beste hainbat. Espaloiak ere txukun-
du dira.

Espaloitik zuzenean errepidera ate-
ratzen direnez oinezkoak, soluzio bat
bilatu dute errepide ertzeko espaloira
heltzeko, bidera irten beharrik gabe.

XABIER MUNIBE IKASTOLAN KOMUN BERRIAK



Xabier Munibe Ikastolan bainu-
X gelak berritu dira. Solairu ba-
tekoak guztiz berritu dira. Beste
batean, berriz, tokia aprobetxatuz,
komun berriak jarri dira.

GALTZADA ETA ESPALOIAK BERRITU DIRA INAZIO IRIARTE KALEAN

Galtzada eta espaloiak berritu dira Inazio Iriarte kalean. Bi metroko zabalerako espaloiak jarri dira eta bide-zorua espaloien kota berean jarri da bizilagunek hala eskatuta. Ikastolara eramaten duen pasagunean ere adaparen irisgarritasuna hobetu da.

La calle Inazio Iriarte muestra otro aspecto tras la reforma de la calzada y las aceras. Tras la intervención, las aceras tienen una anchura de dos metros y el pavimento está a la misma altura que las aceras, una propuesta acordada con los vecinos.



IGERILEKU IREKIETAKO PARKEA BERRITU DA



Urdarte-Igarango igerilekuan dagoen parkea ere berritu da umeei segurtasunez eta kalitatezko jolasekin goza dezaten. Halaber, igerilekuetako txirristak aldatu dira eta itzalkin berriak jarri.

JAUSORO ETA ALTZIBAR ARTEKO ZUBIAREN PROIEKTUA ESLEITUTA

Jausoro eta Altzibar arteko zubiaren proiektuaren erredakzioaren esleipena egin dago jada. Lehenengo fasea gauzatzen ari dira, momento honetan Alternatiben Azterketa deritzan lanketa egiten ari dira, hau da, zubiaren kokapen egokienak jasoko dituen txostena lantzen.

El proyecto para la construcción del puente que unirá Jausoro y Altzibar está en su primera fase o estudio de alternativas para ver cuál es la mejor ubicación.

Alternatiben azterketa egiten ari dira teknikariak, hau da, zubiaren kokapen egokienak aztertzen

ARGITERIA LANAK AURRERA

Azkoitiak argiteria lan sakona behar du. Esku-hartzearen dimentsioa ikusita, lanak faseka gauzatzea erabaki zen eta aurrera doaz pixkanaka. Iaz diagnostikoa egin zen ikusteko koadro elektriko bakoitzaren egoera zein zen, banan banan ziztuzten beharrak aztertuz. Aurten ingeniari-tza enpresa bat proiektua garatzen ari da eta uda aurretik bukatuta egongo da. 2017-2018an ezkutuan geratzen den argiteria sistemaren berritze lanak gauzatzen jarraituko du Udalak. Helburua da 2019an ledak jarri eta kanpoko argiteria hobetzea.

El Ayuntamiento continúa con la mejora del alumbrado por fases tal y como está previsto. Se está haciendo un proyecto para la renovación de los cuadros eléctricos, un trabajo oculto, pero que es urgente y previo a la mejora de la iluminación exterior.

ASTARBE AUZOKO PILOTALEKUAN ETA GUREA FRONTOIAN BERRITZE LANAK



Astarbe auzoko pilotalekua guztiz berritu da. Sarea neguan jarriko da. Izan ere, sarea jartzeko landare batzuk kimatu behar dira eta orain ez da horretarako sasoia. Gurea frontoian hainbat lan egin dira bai barrualdean eta baita kanpoan ere. Fatxada bernizatu egin da eta hezetasunaren aurkako lanak egin dira. Barruan, harmailtan, baranda ipini da eta frontisa eta lateralak margotu eta txukundu egin dira.

EDUKIONTZI BIDEZKO SISTEMA HONDAKIN BILKETARAKO

Errefuxa jasotzeko ipinitako zintzilarioak kendu eta edukiontzi bidezko sistema ezarri du Udalak. Halaber, edukiontzi marroiak aldatu egin dira edukiera handiagoa duten beste batzuentzat.

Horrekin batera, eta materialen gaikako bereizketak gorantz egin dezan, kontzientziazio kanpaina abiatu du Udalak.

Aizpurutxon gertatutakoaren harira, Udalak adierazi nahi du 8-10 puntutan egiten dela oker hondakin bilketa, oker bereiztearen ondorioz. Udalak hondakinak ondo bereiztearen garrantzia azpimarratu nahi du. Orain bereizketa tasa %60-62koa da eta lanean jarraituko du lehenbaiten %70era iristeko.

Tras la retirada de los colgadores, se implanta el sistema de contenedores para todo tipo de residuos. Asimismo, se han sustituido los contenedores marrones por otros de mayor capacidad y se ha lanzado una campaña de concienciación para evitar las malas prácticas a la hora de depositar los residuos.

■ KALEETAN KANPAINA

Irudian ikus daitekeen bezalako kaxak jarri dira herriko hainbat gunetan.



AZKOITIA-URRETXU ERREPIDEAREN HOBEKUNTZA PROIEKTUA AURRERA



Azkoitia-Urretxu GI-631 errepidearen hobekuntza proiektua ez dago geldirik. Proiektuak 45 milioi euroko kostua du eta hiru tartetan aurreratzeko hirugarren errai bat eraikitzea aurreikusten da. Bigarren tarte horretako proiektua jada esleitu du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bost bat hilabeteren buruan amaituta egongo da aurreikuspenen arabera.

TXALON ERREKAKO LURZORU BATEN SALMENTA EUSKO JAURLARITZARI



Azkoitia Lantzenek 1.754.726 eurotan baloratuta dagoen Txalon Errekako lurzoru bat salduko dio Eusko Jaurlaritzari. 2012ko irailetik Jaurlaritza egin da kargu Oinartxoko zabortegiko lixibiatuen tratamenduen kostuz eta Azkoitia Lantzeni egokitu zaio tratamendua ordaintzea erantzule subsidiarioa delako. Ordainketa honi aurre egiteko gauzatu da salmenta, zorra kitatuz. Jaurlaritzak bertan etxebizitzak egiteko konpromisoa du.



BASERRI BIDEAK

Irisarri, Artzabal, Otzolarre, Goñatibia eta Goñatibia Berri baserrietako bideak konpondu dira, landa eremuak sustatuz.

Kultura - Hezkuntza

AZKOITIA, KULTURAREN PLAZA



Udaleko Kultura saila arte eszenikoetz gozatzeko proposamenak areagotzen ahalegindu da. Euskadin antzokiz antzoki dabiltzan antzezlanak ekarri dira eta publikoaren erantzuna ez da makala izan. Hika Teatroaren “Koaderno zuri”, Glu-Gluren “Desoxirribonukleikoa” komedia zientifiko musikala edota Artedramak, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia konpainiek elkarrekin ekoiztutako “Francoren bilobari gutuna” ikusi ahal izan dira, besteak beste.

Ahalik eta egitarau txukunena eta erakargarriena prestatzeaz gain, antzerki mundua bultzatzeko saiake-

ra egin da, besteak beste, aktore eta zuzendariak herrira ekarriz euren obrak aurkeztera. Azkoitian izan ditugu, besteak beste, Agurtzane Intxaurrea, Ylenia Baglietto, Ugaitz Alegria, Ander Lipus edota Erika Olaiola. Ezagunak denak antzerkiaren munduan.

XXVI. Udaberriko Musikaldia

Santa Krutz komentua paradisu bihurtzen da musika maitaleentzat. Aurten Udaberriko Musikaldiak orotzapen eta irudi ezin hobek utzi ditu. “Artxipielagoa” ikuskizunarekin estreinatu da aurten zikloa, Ainhoa Garmedia sopranoak, Pello Ramirez biolontxelo

joleak, Garikoitz Mendizabal txistulariak, German Ormazabal pianistak eta Andoni Egañak ekoiztutako emanaldiarekin, alegia. Bay Triok, Donostiako Orfeoi Txikiak, Cor Infantil del Orfeo Catalák eta Musbika musika konpainiak jarraitu zien.

La agenda cultural ha brindado la oportunidad de disfrutar de obras de teatro como “Koaderno zuri”, “Desoxirribonukleikoa” o “Francoren bilobari gutuna”, así como de espectáculos musicales como “Artxipielagoa” o de conciertos de Bay Trio, Orfeo Txiki o Musbika que han llenado el convento de Santa Cruz cada sábado de mayo.

DIRU-LAGUNTZAK GEHITU ZAIZKIE KIROL ETA KULTUR TALDEEI

Kultur eta kirol taldeei diru-laguntzak handitu zaizkie, euren ohiko jarduerak garatzeko. Urteko egitarauaren eta talde bakoitzaren errealitatearen arabera egokitu dira kopuruak.



Se han incrementado las ayudas destinadas a asociaciones culturales y deportivas.

GAZTANENEA FORMAKUNTZA ZENTROA



**Datorren ikasturteare
begira, ingelesa ikasteko
orain daudenak baino 28
plaza gehiago eskainiko dira
eta ingelesarekin batera,
alemana ikasteko aukera
izango da irailetik aurrera.
A-1 mailan, alemana
ikasteko 20 plaza izango
dira Azkoitian.**

Bajo el lema “Come&Enjoy!”, Gaztanenea Formakuntza Zentroa es un proyecto que se está consolidando poco a poco ofreciendo nuevos servicios y actividades enfocados, hasta el momento, a facilitar el aprendizaje de idiomas. El centro alberga un aula de autoaprendizaje con ordenadores abierto de lunes a jueves de 15.30 a 20.00h y de 10.00 a 13.00h totalmente gratuito.

28 nuevas plazas para inglés y clases de alemán

De cara al próximo curso escolar, se contará con una clase más de inglés. Es decir, se crearán 28 nuevas plazas para aprender inglés. La otra gran novedad es que se ofrecerán clases de alemán en el nivel A1. Para el alemán, el número de plazas será de 20 y en este caso, podrán inscribirse las


personas mayores de 14 años -si no, la edad mínima en la Escuela Oficial es de 16- ya que el alemán se considera segunda lengua extranjera.

Además, durante estos meses se ha organizado un ciclo de películas en versión original, monólogos, charlas en inglés de la mano de hablantes nativos o un curso de vocabulario útil en inglés para viajar.

Mejoras en la accesibilidad y servicios en la planta baja

El Ayuntamiento ha adoptado el compromiso de mejorar la accesibilidad a Gaztanenea con la construcción de una rampa y de construir baños en la planta baja, ya que ahora se encuentran en la planta superior. La previsión es que ambas intervenciones estén acabadas para finales de año.

BERRIKUNTZAK AIZKIBEL LIBURUTEGIAN



Aizkibel Liburutegian berrikuntzak egin dira. Batetik, barruko hormak konpondu dira pitzadurak desagertarazietamargotuz. Halaber, altzari berriak ipini dira erabiltzaileei gunea atseginagoa eta erosoagoa egiteko.

“AZKOITIA EZAGUTZEN” PROGRAMA DIDAKTIKO BERRIA ESKOLENTZAT



Azkoitiko Udalak “Azkoitia Ezagutzen” programa didaktiko berria garatu du ikastetxeentzat, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin herriaren garapen historikoa lantzeko helburuarekin. Programa honen bitartez, ikasleek udalerriko ezagutza sako- na barneratuko dute.

Egitasmoa Xabier Munibe Ikastolarekin eta Floreaga ikastetxearekin elkarlanean gauzatuko da. 10-12 urte bitarteko ikasleei zuzendua dago. Maiatzean eta ekainean eman zaio hasiera eta 169 ikaslek hartu dute parte. Datorren ikasturtean emango zaio jarraipena.

Historiaurretik gaur egun arte udal-erriak izan duen garapena aztertzeko material didaktikoak diseinatuko dira.

El Ayuntamiento de Azkoitia ha desarrollado un nuevo programa didáctico, “Azkoitia ezagutzen” para las escuelas con el fin de dar a conocer a los alumnos de 5º y 6º de Primaria el desarrollo histórico del municipio.

EUSKARA PLUS, EUSKARA, LANA ETA INTEGRAZIOA SUSTATUZ

Euskara Plus programaren baitan, bi ikastaro eskaini dira. Bat etxeko lanetara bideratua eta bestea, pertsona helduen zaintzara. Egitasmoa euskara ez dakitenei zuzendua dago, gizarteratze bidean lagunduz oinarrizko euskarazko hitz eta kontzeptuak erakutsiz.

Ongizatea



■ Udal ordezkariak Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordearekin

AZKOITIA, EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK PROIEKTURA ATXIKITU DA

Azkoitia Lagunkoia es un instrumento para que las personas mayores mantengan durante el máximo tiempo posible el mayor grado de autonomía y de calidad de vida. Se trata de hacerles el día a día lo más fácil posible.

Azkoitia adineko pertsonentzat herri Lagunkoia izateko konpromisoa hartu du. Ofizialki hitzarmena sinatu du Eusko Jaur-laritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailarekin. Proiektua urte hasieran jarri zen martxan eta aurrera eramateko helburua duen talde eragilea sendotua dago jada.

Azkoitia Lagunkoia adineko pertsonentzat zer nolako herria dugun aztertu eta hartu behar-neurriak bideratzea du helburu. Horretarako, hainbat alor azter-tzen ditu, hala nola, irisgarritasu-

na, espazio irekiak, informazioa, gizarte kohesioa, garraioa, e.a.

Aurrera eramateko Udalak eta talde eragileak elkarlanean, duela gutxi zabaldu dute etxe guztietan inkesta bat diagnostiko bat lan-du ahal izateko. Diagnostiko horrek erakutsiko du zeintzuk diren eman beharreko urratsak Azkoitia gero lagunkoia izateko.

Egitasmoak bilatzen duena da adineko pertsonen euren autonomia eta bizi kalitatea ahalik eta denbora gehien mantentzea.

591
inkesta jaso ditu Udalak



HURKOA CONTARÁ CON UNA SEDE EN LA KALE NAGUSIA DE AZKOITIA

Hurkoa es una organización sin ánimo de lucro creada por iniciativa de Cáritas para atender, tutelar y defender los derechos de personas mayores o con enfermedad mental en situación de fragilidad, dependencia o desprotección.



Hurkoak eskaintzen duen arreta tutelarra, herrian, Azkoitian, emango du hilabete gutxi barru Udalarekin lortutako akordioari esker. Udala lokal bat egokitzen ari da Hurkoaren bulegoak jartzeko, justu, Torre Zuri erakusketa areto ondo-ko lokala, alegia. Horrela, Hurkoak bere zerbitzuak eskaintzen dituen laugarren herria izango da Azkoitia. Orain arte, Donostian, Irunen eta Arrasaten ditu egoitzak. Aurreikuspenen arabera, uda ostean bulegoak martxan izango da.

Hurkoa irabazi asmorik gabeko erakundea da. 1990ean sortu zen Donostiako Elizbarrutiko Caritasen ekimenez eta bere egitekoa da hauskartasun, mendekotasun eta babesgabetasun egoeran dauden adineko pertsonen edo gaixotasun mentalak dituztenei arreta ematea, haiek zaintzea eta haien eskubideak defendatzea.

Eskaintzen dituen zerbitzuen artean dago, besteak beste, modu autonomoan jokatzeko gaitasuna galdu duten pertsonen babes pertsonala

eta ondarearen babesa bermatzea. Hurkoak aholku ematen die informazioa eta orientazioa nahi dituzten familiei eta euren tutoritzapean dauden pertsonentzat ahalik eta babes eta ongizate-mailarik handiena bilatzen dute.

Hurkoa actualmente tiene oficinas en Donostia, Irun y Arrasate. La organización sin ánimo de lucro se dedica a la atención, tutela y defensa de los derechos de las personas mayores o con enfermedad mental. El Ayuntamiento está equipando un local en Kale Nagusia, junto a la sala de exposiciones Torre Zuri, para albergar el servicio que estará en marcha previsiblemente después de verano.

Hurkoa trabaja por asegurar la protección personal y patrimonial de las personas que, por su deterioro cognitivo, enfermedad o situación de riesgo, han perdido su capacidad de actuar de manera autónoma. Hurkoa asesora a las familias que deseen información y orientación.

“MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA” ZIKLOA MARTXAN



Aurtengo ikasturtean jarri da martxan Urola Ikastolaren Erdi Mailako ziklo berria: Mendekotasun egoeran dauden Pertsonentzako Arreta”. 18 ikaslek osatu dute lehenengo promozioa. Zikloak zaintzaileen profesionaltasuna bermatuko du, enplegua sustatzen lagunduz. Azpeitiko eta Azkoitiko udalek elkarlanean atera dute proiektua aurrera.

Se ha puesto en marcha un nuevo ciclo formativo de grado medio de Atención a Personas Dependientes. Las personas que adquieran el título estarán acreditadas para trabajar en instituciones de atención socio-sanitaria, en el servicio de ayuda a domicilio o en el servicio de atención telefónica.

18 ikasle
izan ditu erdi mailako ziklo berriak

Prebentzio mahaia

DROGOMENPEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO UDAL PLANA

Udala drogomenpekotasunen prebentziorako Udal Plana lantzeko egitasmoa martxan du. Plana sortzeko, abiapuntu gisa, edukia landuko duen funtzesko gunea sortu da: Osasun Mahai Komunitarioa edo Prebentzio Mahaia.

Lehenengo fasean Udaleko sail ezberdinetako teknikari eta politikariek osatuko dute mahaia. Alderdi guztiei luzatuko zaie parte hartzeko gonbitea. Uda ostean mahaia zabaltzeko saiakera egingo da beste eragile batzuen partaidetzarekin, esaterako, ikastetxeak eta esparru ezberdinetako erakunde hezitzaile eta formatzaileak (aisia, kirola, kultura, e.a.)

Se ha creado una Mesa de Salud Comunitaria que impulsará la creación del Plan Local de Prevención de las Drogodependencias. Los agentes impulsores son técnicos y políticos aunque se quiere extender la iniciativa a centros escolares y entidades educativas y formativas que trabajan en distintos espacios: ocio, deporte, cultura...

ORDENANZA PARA INTENTAR REGULAR EL DIFÍCIL EQUILIBRIO ENTRE EL OCIO Y EL DESCANSO



Udalak ordenantza bat onartu du aisiaz gozatu nahi dutenen eta atsendena desio dutenen eskubideen arteko oreka sustatzeko. Araudiak bi esparru nagusi jorratzen ditu. Batetik, adin txikikoak babestea du helburu, horretarako indarrean dagoen legedia betearaziz eta bestetik, ikuskizun publiko edo aisialdiko jardueretan segurtasun baldintzak bermatzea.

Halaber, ordenantzak barne hartzen ditu tabernek dituzten ordutegiak eta baimen akustikoak errespetatu daitezzen.

La ordenanza es una herramienta para hacer cumplir las leyes que están en vigor como la prohibición de fumar en el interior de los establecimientos o de servir alcohol a menores. Además, en el caso de organizar eventos o espectáculos públicos como pueden ser los conciertos, los organizadores deberán adoptar una serie de compromisos que tienen que ver con el tema de la seguridad.



GURASO ESKOLA SEME-ALABEN HEZIKETAN SAKONTZEKO

ONGIZATE sailak Guraso Eskola antolatu du aurten seme-alaben heziketan eta drogomenpekotasunaren prebentzioan lan egiten jarraitzeko. Gurasoek dituzten kezkek, beldurrak edo zantzak partekatzeko gunea izan da. Jose Mari Izeta psikologoak zuzendu ditu saioak.

Partaidetza

PARTAIKETA PROZESU IREKIAK



Kudeaketa eraginkorra eta zuzen-tasun instituzionala dira Udal honen zutabe nagusiak. Herritarren arazoei soluziobideak jartzeko dago Udala eta egiteko horretan ahalik eta erabakirik zuzenena hartzeko bere esku dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu. Horietako bat herritarren parte-hartzea da. Udalak herritarren

iritzia ezagutzeko hainbat prozedura jarri ditu martxan, arrazoi batengatik: ahalik eta erabakirik zuzenena hartzea eta horretarako herritarrei entzutea ezinbestekoa da, nahiz eta jakin azken erabakia hartzearen erantzukizuna delega ezina dela eta Udalari berari dagokiola.

Erabaki prozesuak zabaldu dira:

La ciudadanía ha participado en varios procesos de toma de decisión del Ayuntamiento.

- Santa Klara, Inazio Iriarte, Ricardo Otaño, Ama Josefa eta Jose Eginok kaleetan egin diren esku-hartzeak definitzeko
- Floreaga auzoan igogailuaren beharra edo nahiaren zenbaterainokoa aztertzeko
- Prebentzio mahaia osatzeko
- Azkoitia Lagunkoia proiektua aurrera eramateko
- Bizikidetza eta Aniztasun Plana lantzeko
- Merkatariei eskainitako zerbitzuak hobetzeko
- Ikuskizun publikoak, noizbehinkako aisialdi jarduerak eta aisialdi erabileren ordenantza garatzeko

UDAL WEBGUNE BERRIA MARTXAN

Udalak webgune berria garatzeko prozesua abiatu du. Helburua da herritarrei informazioa modu erakargarriagoan eta ulerterrazagoan eskaintzea edukien antolaketa egoki baten bidez. Administrazio izapideak etxetik egiteko aukerak zabaltea eta erraztea ere bada asmoa, plataforma interaktibo eta intuitibo baten bidez. Proiektua hasierako fasean dago.

Aunque se encuentra en su primera fase, el Ayuntamiento ha arrancado ya el proyecto de desarrollo de la nueva web municipal.

WEBGUNE BERRIAK

Abarketatxo Ludotekaren, Artxamendi Topalekuaren eta Gazte Zerbitzu Bulegoaren informazioa bateratzen dituen webgunea

www.gazteriazkoitia.eus



Bailarako lan eskaintzak eta informazioa bateratzen dituen webgunea

<http://www.urolanprest.eus/>



PROZEDURA ADMINISTRATIBOEN ESKULIBURUA SORTZEKO LANEAN

Udala Prozedura Administrazioen Eskuliburua garatzeko lanean hasi da. Helburua da herritarrei zerbitzu eraginkorragoa, arinagoa eta errazagoa eskaintzea izapideak arrazionalizatuz.

Prozedura Administrazioen Eskuliburua udalen prozeduren gaineko oinarriko informazioa jasotzen du: esanahia, nork eskadezakeen, entregatu beharreko dokumentazioa, nola bideratu, bete-kizun ekonomikoak, epeak, e.a.

ZER BALANTZE EGITEN DUZU LEGEALDIKO BIGARREN URTEAZ?

EAJ-PNV

Onartu beharra dauka-gu lehenengo urtean denbora asko joan zitzai-gula udalaren funtzionamendua bera eta aurretik martxan zeuden prozedurak eta proiektuak eza-gutzen, barnekoak zein kanpokoak. Edonola ere, emandako hitza betetzeari ekin genion lehenengo egunetik. Legegintzaldiko bigarren urtea, ordea, emankorragoa izan da eta egindako eta egiten ari garen lanaren parte bat ikusi egiten da. Beti esan izan dugu gu ez gaudela liskar politikoetarako baizik eta herritarren arazoei soluzioak jartzeko. Ume, gazte, heldu eta adineko pertsonen beharrak asetzea da gure eginkizuna, zerbitzuak eta baliabideak premien arabera lehenetsiz. Herritarren ongizate maila hobetzeko desioak mugiarazten gaitu, nahiz eta erabakiak zuhurtziaz hartzen jakin. Hirigintzan Idiakez Etxearen egoera desblokeatu dugu, auzoetan inbertitu, parkeak homologatu, irisgarritasun lanak gauzatu edota edukiontzi bidezko hondakin sistema bilketa ezarri. Argiteria lanekin ere aurrera goaz, ezkutuan geratu arren, kaleko argiak aldatu aurretik sistema elektriko guztia berritu behar baita. Hezkuntzari lotuta, hor dago Gaztanenea Formakuntza Zentroa zerbitzu propioekin, Hizkuntza Eskolaren gela desplazatuen osagarri. Kulturaren kalitatezko programazioa eskaintzea lortu dugu eta ongizate alorrean, Azkoitia Lagunkoia proiektua abian da eta adineko pertsonak babestea misio duen Hurkoa Fundazioa herrira ekartzea lortu dugu. Udal barrua ere ordenatu dugu. Eta lanean dihardugu emandako hitza betetzen.

EH BILDU

Jada bi urte pasa dira herriak erabaki zuenetik eta beste bi falta zaizkigu berriro erabakitzeko. Bi urte hauetan EAJk gure herrian ez du askorik egin gazteleraz esaten den moduan "Chapa y pintura" hutsa. Egia da aurre-ra pausoak egin direla esaterako nagusia 80ko eraikinarekin, auzitegiek hala utzi dutelako azkenean eta bideari jarraitu diote Udal Gobernutik, ezer berririk ez. Zumaragako bidean beste horrenbeste eta horrela segituko duen susmoa dugu, datorren hauteskundeetan berrerabiltzeko amets gozoa. Zaborrekin zer esanik ez, azken datuak (martxokoak) eta %62, Udalbatzako akordioa bete gabe jarraitzen dute. Berdintasunean, zerbitzua subkontratatu eta oraindik bete gabeko plana daukagunean 2. plana egiteari ekin diote. Herritarrek eskatutako parke estalia ere ez dugu gerturatzen ikusten. Aurrera begira egiteko asko dago Azkoitian eta EH Bilduk beti bezala eskua luzatzen dio EAJri datozen 2 urtetako erronkei batera aurre egiteko, Elkargunearen lizitazioaren amaierari adibidez. Aukera paregabea zerbitzua publiko bihurtu eta herritarrei kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko.

AZKOITIA BAI

Ez dugu esango egiten Eari diren dena, oker egiten ari direnik, gu ez gara horrelakoak. Adibide bezala, N.80ko aldarmioak desagertzeko bidean doaz, parkeek ere berritu bat hartu dute, udaleko antolaketa birmoldaketa bide onetik doala dirudi... Hala ere, esan behar, udal gobernuaren funtzionamenduak asko kezkatzen gaituela eta idatzi hau adibide bezala. Beti dago aukera zerbait esateko, hori bai, edukiak, momentua, forma (1.072 karaktere)... guk erabakiko ditugu. Udal batzordeetan ere berdina gertatzen da. Gaia udal gobernuak aukertzen du eta besteok, zerbait esateko badugu esan, eta bestela isildu. Biolentzia matxistaren aurka, salaketa orokor bat egin nahirik, bi urte daromatza gure taldeak eta ez dugu ezer lortu. Honelako gai batetan elkarrekin ezer egiteko kapaz ez bagara, beste saiakera denek ere antzutzat jo beharko ditugu? Zeuek erantzun. Pena da, baina gero eta garbiago ikusi daiteke, gehiengo osoak egiten digun mina. Eta nola ez, parte-hartzean dugun ikuspegi ezberdina, esateko, herri galdeketa erraminta, hondakinen kudeaketa aldatzeko bakarrik erabili zuten. Pentsakera ezberdina dugu, baina orokorrean jende ona dago udal gobernuan.

PPSE

Estamos a mitad de legislatura y, en el ayuntamiento de Azkoitia, por ahora, la legislatura transcurre sin sobresaltos. Desde el grupo municipal PSE-EE de Azkoitia intentamos hacer un seguimiento del gobierno municipal.

El interés del PSE-EE de Azkoitia es que el ayuntamiento priorice las cuestiones sociales en especial, las que puedan afectar a las personas sin recursos, a los jóvenes y a los más mayores.

Veremos cómo transcurre el resto de legislatura, pero nosotros tenemos claro que nuestro trabajo ha de ser social y responsable.

Legealdiaren erdialdean udaletan, oraingoz, izurik gabe igarotzen ari da. Azkoitiko Pse-ee Udal taldeak, udal gobernuaren jazarpen bat egiten saiatzen gara.

Azkoitiko PSE-EEk taldeak duen interesa, udalak gai sozialetan lehenetasuna izan dadila, batez ere, baliabiderik gabeko pertsonenei zuzenduta, gazteei eta nagusiei.

Legealdia nola jarraitzen duen ikusi beharko dugu, baina argi daukaguna, gure lana soziala eta arduratsua izan behar duela.

CRISTÓBAL BALENCIAGA, NUEVO NEXO DE UNIÓN ENTRE AZKOITIA, GETARIA Y PARÍS



Cristóbal Balenciaga tiene sus raíces en el caserío Balentzixa de Santa Cruz. El árbol genealógico creado por Juan Bautista Mendizabal revela que su tatarabuelo nació en Azkoitia. El periodista de moda y diseño de Le Monde Xavier Bosquillon ha visitado nuestra localidad para dar testimonio de los orígenes del “arquitecto de la alta costura” en su reportaje.

Balenciaga se convierte así en el nuevo nexo de unión entre Azkoitia, Getaria y París.

Juan Bautista Mendizabalen lan Jonari esker jakin dugu “Balenciaga” abizenaren jatorria Azkoitiko Balentzixa baserrian dagoela. Cristóbal Balenciagaren herenaitona zen bertakoa, ikerketa lanaren arabera. Aurrerikuntzak udalerriarekiko interes turistikoa areagotzen du eta jada hasi dira ematen lehenengo kontaktuak turismoaren ikuspegitik nola jorratu aztertzeko.

Hain justu, Frantziako Le Monde egunkariko Xavier Bosquillon kazetariak Azkoitia bisitatu berri du, egunkariak ateratzen duen “Télé-

rama” aldizkarirako erreportaje bat egiteko. Bertan Balenciagaren jatorriaren berri ematekotan da. Izan ere, diseinatzaileak Frantziarekin izan zuen lotura estua ikusita, Azkoitia, Getaria eta Paris uztartzen dira Balenciagaren ibilbidean.

Ildo horretan, Iraurgi Berritzenen eskutik, ahalegina egingo da udalerriko turismoari bultzada emateko jazoera honetaz baliatuz. Asmoa da ibilbide bat osatzea Balenciagaren eta Azkoitiaren arteko lotura aprobetxatuz.

“ELKARREKIN ERAIKITZEN” PROIEKTUA BIDE ONETIK



“Elkarrekin eraikitzen” egitasmoaren laugarren edizioa garatu da aurtengo ikasturtean Azpeitiko eta Azkoitiko ikastetxeen, Udalen eta eragileen arteko elkarlanari esker. Beste behin, balorazio positiboa egin dute ardura-dunek. Zifrei erreparatuz gero, proiektuaren dimentsioa gero eta esanguratsuagoa dela esan daiteke. 12 irakasle, 150 ikasle eta 40 eragile murgildu dira.

AGENDA

UZTAILA

7tik 8rako gauean, VII. Ehunmilak ultra-trail (168 km)

7 Urrategi auzoko jaiak

22:00etan mus txapelketa azkarra.

9 Urrategiko eguna.

• **09:00**etan Meza.

• **10:45**ean Urrategiko amaren 400.urteurrena dela eta Juan Bautista Mendizabalen hitzaldia.

• **11:00** Meza Nagusia.

• **12:00**etan Iban Urdangarin eta Larrañaga bertsolarien saioa.

• **12:30**ean Herri kirolak: Proba konbinatua:

-Urrestilla auzoko Mikel Larrañaga eta Xabier Aranburu "Guzta".

-Urrategi auzoko "Txikia IV" eta "Goenatxo III".

• **13:30**ean Zabale eta Larrañaga trikitilarien saioa.

• **16:30**ean Gorriti eta bere abereak.

• **16:30**ean Ume jolasak: puzgarriak eta tailerrak.

• **18:00**etan Irizar Etxetxoko "Yerman" astoa eta Mendaroko "Tope natxiok" giza proba taldearen arteko dema saioak.

Ondoren Zabale eta Larrañaga trikitilarien erromeria.

Musika Bandaren kontzertua.

15 Herriko plazan, **22:30**etik aurrera, Tabernarien Elkartek antolatuta, "Tor sarmiento" y Pura posse".

22 Andramaixetako plater tiraketa, Orion elkartearen eskutik.

29 **19.30**ean, Jenny Calero eta ikasleen ongintzazko areto dantzen ikuskizuna (ASPANOGLI elkartearentzat)Gurea Frontoian.